

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus— www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA

Bitartekaritza eta Ekintza Komunitarioko Unitatea ezabatzeari buruz

Reyes Carrere Zabala EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin, Bitartekaritza eta Ekintza Komunitarioko Unitatea ezabatzeari buruzkoa. Mozioa 2021eko irailaren 20an Zerbitzu Orokorren Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udal Gobernuak Udaltzaingoko Bitartekaritza eta Ekintza Komunitarioko Unitatea (UMAC) kentzea erabaki du. Unitate horrek ibilbide laburra izan du: 2014ko abenduaren 5eko Tokiko Gobernu Batzordean onartu zen, hiru urte geroago jarri zen martxan, 2018an, eta 2021ean "desegitea" erabaki dute. Hau da, hiru urteko jarduera eskasean, Udal Gobernu honek erabaki du jada ez dela beharrezkoa.

UMAC ofizial batek eta bost agentek osatzen zuten eta, funtsean, herritarren artean sortutako gatazkak konpontzen laguntzeko diseinatu izan zen: auzokideen arteko liskarrak, bizikidetzaz-eragoak, gizalegearen aurkako portaerak, animaliek eragindako eragozpenak, eta abar. Halaber, baimendutako bitartekaritzaren bidez, harreman pertsonalak hautsi eta degradatu zitzaizketen prozesu judizial luzeak saihestu nahi ziren.

Hala ere, salbuespen gutxi batzuk kenduta, ia ez dute auzotarren arteko bitartekaritza-lan hori egin. Indarrean egon den bitartean, pisu turistikoak kontrolatzen jardun du ia eskusiboki. Hau da, bere hasierako funtzioetik oso urrun dagoen lana egin du.

Adierazi behar da ERNE Donostiako Udaltzaingoa sindikatu nagusiak eta Udaleko langileen batzordeak behin eta berriz ohartarazi dutela Udal Gobernuak ez duela benetako interesik izan zerbitzu horrekiko, eta,aldi berean, behin baino gehiagotan salatu dute, egindako kudeaketa negargarriaren ondorioz, langileek izan duten lan-babesgabetasun egoera.

Izan ere, Udal Gobernu honek ez du giza baliabide, baliabide material eta prestakuntza espezifikorik eman unitate honek sortu zeneko helburuak bete zitzaizkan, eta ahultzen utzi du; "auzo" polizia-unitate baten aldeko apustua egin beharrean, Udal Gobernuak desegiteko prozesua abian jarri du.

Beste leku batzuetan, bitartekaritza-unitateak sortzearen eta finkatzearen aldeko apustua egiten duten bitartean, Donostian hori desagertzeko zorian dago. Aditu askok adierazi dute horrelako esku-hartzeak funtsezkoak direla gatazkak konpontzeko eta garrantzitsua dela polizia-ikuspegia, zigortzailea izan ohi dena, prebentzioko ikuspegira migratzea, polizia-metodologia onuragarriari begira.

Beste behin ere, gobernu hau oker dabil. Beste hiri batzuetan - Las Palmas de Gran Canaria¹, Mostoles²,

1 <https://www.laspalmasgc.es/es/ayuntamiento/prensa-y-comunicacion/notas-de-prensa/nota-de-prensa/El-Ayuntamiento-crea-la-Unidad-de-Convivencia-y-Mediacion-de-la-Policia-Local-para-potenciar-la-cercania-con-el-ciudadano-y-mejorar-su-eficacia/>

2 https://www.mostoles.es/policia_municipal/es/mediacion-policial

Pedrola³ - bitartekaritza-unitateak sortzearen eta sendotzearen aldeko apustua egiten duten bitartean, Donostian desagertzeaz dago.

Eta hori gutxi balitz bezala, Udaltzaingoaren saileko arduradunek, autokritikarik egiteko gai ez direnez, UMACeko agenteei egotzi diete desagertzearen erantzukizuna. Izan ere, ERNE sindikatuak jasotako irizpen batean honako hau adierazi dute: *“No resulta de interés para el personal de la Guardia Municipal, no pudiéndose cubrir las vacantes existentes y realizándose las tareas atribuidas a esta Unidad por parte de Agentes de UPP.”*. Interes falta Udal Gobernuarena da, ERNEren arabera.

Udal Gobernu batzordean interpelatu ondoren, zinegotzi delegatuak onartu zuen, beharrezko unitatea izan arren, langilerik ez izateak zerbitzu hori kentzera behartu duela, UMACen berezko lanak beste unitate batzuek hartuko zituztela eta pandemiak beste lehentasun batzuk ezartzera behartu duela.

Hala ere, erantzun horietako batek ere ez du justifikatzen unitate garrantzitsu hori ezabatzea.

Horregatik guztiagatik, sinatzen duen zinegotziak KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

- Donostiako Udaleko osoko bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio berehala berraktiba dezala Bitartekaritza eta Arreta Komunitarioko Unitatea (UMAC), eta behar diren giza baliabideez eta baliabide ekonomikoez hornitu dezala, bertako agenteeek herritarrei bitartekaritza- eta laguntza-lana egin ahal izan diezaieten, unitate hori diseinatu zenean planteatu zen bezala.
- Donostiako Udaleko osoko bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio, Udaltzaingoaren ordezkari sindikalekin batera, unitate honek eskatzen dituen prestakuntza, material eta giza beharren diagnostikoa egin dezala.

Donostian, 2021eko irailaren 24an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko zinegotzia